

2009-03-31n EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA  
CORPORACIÓN. Día 31-03-2010

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria  
Ander Aguiriano Errasti  
Edorta Barandiaran García  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Begoña Eraña Lazcano  
Karmelo Leceta Abasolo  
Maider Otamendi Tolosa  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugues Barberán.  
Leire Okaranza Ibabe

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta bederatziko martxoaren hogeita hamaikean, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día treinta y uno de marzo de 2010, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2010/02/24an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

Bilkura horretan Pierrugues jaunak Ezker Batuak aurkeztutako mozioaren mozio alternatiboa aurkeztu zuen: PENTSIOEN ERREFORMARI BURUZKO MOZIO ALTERNATIBOA. Mozio hori bozkututa, Berdinketa izan zen eta ez zen bigarren bozketarik egin, eta beraz, mozioa mahai gainean gelditu zen hurrengo bilkurara arte eta berdinketa erabakitzeko zain. Bere garaien aurkeztutako mozioa bertan behera utzi du Pierrugues jaunak bilkura honetan, eta beraz, ez da bidezkoa horri buruzko bigarren bozketarik egiterik.

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK ETA ERABAKIAK**

### **3.1.- ERABAKIAK**

Berariaz, ondorengo erabakiaren berri eman da:

**ZENBAKIA:** B10/00159

**DATA:** 2010/03/09

**GAIA:** KREDITU ALDAKETA: TXERTAKETA (*aurrerapenez inkorporazioa*)

**ESPEDIENTEA:** 2010KKR10002

*Eskoriatzako Udalaren 2010eko Aurrekontuan kreditu aldaketa espedientea tramitatu da, aurreko urteko Aurrekontuko kreditu soberakinak txertatzeko.*

*Aipatutako espedientea aztertu ondoren, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena eta onespenn proposamena ere aztertu ditugu, eta baita espedientearen egindako gainerako jarduketak ere.*

*Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 32.6. artikuluan eta indarrean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Arauak 14 artikuluan, kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Alkate naizen honek honako hau*

### **ERABAKI DUT**

***Bat.- 4 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea -aurreko ekitaldiko aurrekontuko soberakinak 2010eko Aurrekontuari txertatzeari buruzkoa-, ondorengo kapitulu laburpen honen arabera:***

### **GASTUAK-GEHIKUNTZAK**

Kap.	Izena	Euroak
1	Pertsonalaren gastuak	
2	Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea	
4	Transferentzia arruntak	
6	Inbertsio errealkak	31.106,00 €
7	Kapital transferentziak	
8	Aktibo finantzarioak	
9	Pasibo finantzarioak	
TXERTATUTAKO SOBERAKINAK GUZTIRA		31.106,00 €

SARRERAK-FINANTZAKETA

Cap.	Denominación	Euros
7	Kapital Transferentziak	6.413,25 €
8	Aktibo finantzarioak. Diruzaintzako soberakina	24.692,75 €
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		31.106,00 €

*Bi.- Kredituen txertaketa aurreratua behi-behinekoia izango da, eta 2009ko aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.*

*Hiru.- Egintza hau irmoa eta betebeharrezkoa da, bestelako trámito barik; beraz, Fondoen Kontuhartzaitza zerbitzuek, onartutako aldaketa Kontabilitatean sartu beharko dute berehalako ondorioekin, sarreretan zein gastuetan.*

Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzailak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzierik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 2.2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK

Ez dago.

## 3.- 2010eko AURREKONTUA ONARTZEA. (Egonkortasunari buruzko txostena)

Bertaratutako zinegotzi guztiek ezagutzen dute onartua izan dadin Hazienda batzordeak aurkeztutako 2010eko aurrekontu proposamena.

Hitza eman ondoren, besteak beste, hitzez hitz transkribatzen diren ondorengo parte hartzeak izan dira:

Leceta jauna:

*Gure abstentzioaren arrazoia inbertsioak egiterakoan batzorde ezberdinaren artean dagoen aldea da.*

*Gehienak Elizateak eta Kulturan dira. Faltan botatzen dugu, adibidez, Luis Ezeizako jolastokia konpontzea.*

*Arraioa da elizateak seinaleztatzeko diru-izendapen bat sartzea, orain dela 3 urte elizateko zinegotziak horrek ez zuela inongo lehentasunik esan zuenean.*

*Erkotxeko urari dagokionez, Bidegik egin beharko lukeela komentatu zen. Aurreko agintealdian Erkotxeoekin akordio bat lortu zen Udalak egiteko, eta horrela, beraiek beste gauza batzuk negoziatu ahal izateko Bidegirekin. Gogoratu behar da Udalak Apotzagara osora eraman zuela ura, eta autopista egin ez balitz eta Erkotxeoek ura eskatu, horiei ere eraman beharko litzaikeela.*

*Gainera, Erkotxen gastatzea aurreikusita dagoena, 59.000 euro, Udalak uraren kudeaketarekin izan behar duen superabitaren % 30a baino gutxiago izan behar da. Datuak ateratzerakoan gehiegi nahastu ez banaiz, Udalak 623.632 euro jaso behar ditu urarengatik, estolderiengatik eta elizateetako ur-biltegien mantentze-lanetarako diru laguntzengatik. Gaste guztiak, ur-biltegi horien mantentze-lanak eta azpiegitura kanona barne, 445.436 euro izango dira, hau da, 207.364 euroko (34 milioi pezeta baino gehiago) superabita Udalaren alde.*

*Sobera dagoen diru guzti hori ur sarea hobetzen, ur ihesak antzematen eta abarretan gastatu beharko litzateke.*

*Gainera, ez lego ke gaizki ere onartu genuen uraren ordenantzak eskatzen dituen hobekuntzak egingo balitu Udalak eraikin publikoetan.*

#### **Urrutia jauna:**

*Gu abstenitu egingo gara honako arrazoi hauengatik:*

*Lehendabizi, komentatu behar dut, alkatezaren txostenean esaten den bezala, diru gutxiago biltzearekin eta gaur egungo zorrarekin ezin dela zor handiagorik hartu, eta gastu arrunta hobeto aztertu beharko litzatekeela.*

*Horretarako, zerbitzu batzuen kostua aztertu dugu gaur egungo egoera hobeto ikusi ahal izateko:*

- *Kiroldegia: Ekintzarik gabeko (zabaltza bakarrik) defizita, 245.600,69 €.*
- *Ibarraundi: Ekintzarik gabeko defizita, 127.756,86 €.*
- *Zabor zerbitzuaren defizita 51.992,96 €-koa da.*

*Datu horiek kontuan izanik, egoera honetan kostu finko guzti horren jarraipen estua egin beharko genuke bi norabideetan: alde batetik, gastua kontrolatu; eta bestetik, datozen aurrekontu ekitaldietan kostu finko horiek murrizteko hobekuntza neurriak eta beharrezko inbertsioak aztertu eta burutu.*

*Uste dugu II eta IV kapituluetau aurreztu daitekeela eta, era berean, uste dugu ekonomia krisi egoera honetan enpleguaren alde iaz egindako ahaleginarekin jarraitza mereziko lukeela peoiak zuzenean kontratatzu, Oñatiako eta Aretxabaletako udalek egin duten bezala, eta autoenplegurako eta enpresa txikiak sortzeko diru laguntza lerroak zabalduz. Dorletatik erabilgarri gelditu dena ere gehienbat inbertsioen kapituluua gehitzeko erabiltza egokia izango litzatekeela uste dugu.*

#### **Pierrugues jauna:**

*Lehendabizi esan behar dut, garbi dagoela hauetako ez direla Alderdi Sozialistak egingo lituzkeen aurrekontuak, baina, dugun ekonomia krisi egoera kontuan izanik, herritarrentzat hobe dela aurrekontuak izatea ez izatea baino, horrek gastu sozialean eta inbertsio publikoetan egonkortasun handiago eta segurtasun handiagoa dakarrelako.*

*Gainera, gastu sozialaren aldeko Udalaren apustuak lehentasuna izan behar du, une hauetan ezin dugulako inor bazter utzi.*

*Jarrera hori bat dator azken garaietan izan dugunarekin. Krisi egoera batean aurrera ateratzeko denok norabide berean arraun egin behar dugulako. Hori izan beharko litzateke euskal alderdi guztien aberriaren aldeko benetako helburua. Gogoetarako balio badu diot, urtero bezala alderdi politiko batzuk Aberri Eguna ospatu behar duten honetan.*

*Logikoki, aurrekontuen aldeko jarrera hau Eskoriatzarrentzat garrantzizkotzat jotzen ditugun hainbat politika sozial babesteko Alkatearekin izandako negoziazioaren ondorengoa da.*

*Negoziazio horretan lortutako akordioak honako hauetakoak izan dira:*

*1.- Soberakinaren kargura diru partida bat gordetzea, alde batetik, Axtroki inguruan lur sail bat –bere garaian gidatze praktikak egiteko erabili zena- erosia eta egokitzea; eta bestetik, herri inguruan parke bat egiteko lurra erosteko Deba ibaiaren ezkerraldeko hegalean.*

*2.- San Pedro eremua berriz urbanizatzeko egin gabe gelditutako obrak egiteko dagokion hirigintza dokumentua idaztea.*

*3.- Bidegiri eskatzea bere gain har dezala Erkotx baserrira gasa eta ura eramateko gastua.*

*Amaitzeko, esan gura dut, nire iritziz 2010eko ekitaldi honetan Eskoriatzako Udalak hainbat ekintza egin beharko lituzkeela honako hauetarako:*

. Energia eraginkortasuna eta aurrezpenerako, bai erakin publikoetan bai herri argiteriako sare orokorrear. Horretaz ari garela, aurten izugarri igoko den aurrekontu partida izango da.

. Ur hornidura sarean ur ihesak antzeman eta konpontzeko.

. II. gastu kapituluko beste gastu garrantzitsu batzuk, hala nola, kale garbiketa eta abar.

Merino jauna: ni abstenu egingo naiz. Lehentasun handiagoa eman zaie kultur gaiei eta baita elizatekoei ere. Abstenu egingo naiz alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Parte hartzeak amaitu ondoren, bozketa egin da eta aldeko 7 botorekin (Alkate jauna, Lezeta andrea, Barandiaran jauna, Agiriano jauna, Otamendi andrea, Pierrugues jauna eta Okaranza andrea) eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen abstentzioarekin (Urrutia jauna, Eraña andrea, Leceta jauna eta Merino jauna) Udalbatzarrak honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** Udaletxeko Aurrekontu Orokorra osatzen duten aurrekontu guztien eta bakoitzaren gainean Idazkaritza-kontuhartzaitzak egindako txostenaren eta bere edukiaren jakitun gelditzen dira, eta zehazki, horietako bakoitzean aurrekontu-egonkortasun helburua betetzeari, eta hala bada, ez betetzeari dagokionean, Aurrekontu-egonkortasunaren Lege Orokorreko 19 artikuluko 1 eta 3 ataletan aurreikusitakoaren arabera.

**Bigarrena.-** Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako udal aurrekontua: 5.062.084,52 €

**Hirugarrena.-** Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako Telesko-Udal Telebista fundazioaren aurrekontua: 82.348,57 €

**Laugarrena.-** Hasiera batean onartzea honako kopuru honetako Eskoriatzako Industrialdea S.A.-ren aurrekontua: 10.342,59 €

**Bosgarrena.-** 2010eko aurrekontua exekutatzeko oinarriak eta 2010eko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Seigarrena.-** Onarpena behin betikotzat jotzea inolako erreklamaziorik ez balego, erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko 15 egunez erabakia jendaurrean egon ondoren.

#### **4.- 2010eko LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.** 2010erako plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda onartzea hasiera batean.

**Bigarrena.-** Dokumentu biak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

#### **5.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei

(*)KONTZEP/EPEA/ZKIA	ZENBATEKOA	ZERGADUNA	ZERGATIA
003/2008/03/183	31,88	Sabina ARTAZA LARREA	Ura moztuta zegoen (ur-baja)
003/2008/03/1448	245,30	Juan REGAÑO RUBIO	Ur irakurketa okerra.

**6.- FRANCISCO AMARAL DE SOUSA JAUNAK KUATRUENA 1 HIE EREMUKO PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEKO 2008KO IRAILAREN 18KO UDALBATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRAZTERTEKO EGINDAKO ESKAERAREN GAINeko PROPOSAMENA.**

2010eko martxoaren 3ko sarrera eta 335 erregistro zenbakia duen idatzi bidez Francisco Amaral de Sousa jaunak hitzez hitz honako hau eskatu du:

SOLICITA AL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA tenga por presentado este escrito, se sirva admitirlo, y en mérito a lo expuesto en él incoe el correspondiente procedimiento de revisión de la Aprobación Definitiva de la Modificación del Plan Parcial de la citada Unidad .U.I. 1 “Kuatriuena” aprobada por el Acuerdo Plenario de 18 de septiembre de 2.008, con los demás efectos señalados en el apartado 3º de este escrito, incluido el de suspensión de la ejecución de dicha Modificación del Plan Parcial.

Francisco Amaral de Sousa jaunak, zehazki, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearen Legeko 102. artikuluan ofizioz berrikusten den prozedura hastea eskatu du. Horretarako alegatu du Plan Partzialaren aldaketa behin betiko onartzen zuen 2008ko irailaren 18ko erabakiak legea larriki hausten duela ondorengo arrazoiengatik:

1.- *Bere iritziz, ez dira existitzen Kuatriuena HIE 1eko Plan Partziala aldatzeko oinarritzat hartutako gehiegizko aprobetxamenduak. Hori justifikatzeko uste du partzela bakoitzean garajeetarako erabilitzeko dauden espazioek ez dituztela betetzen horiek erdisotoko solairutzat jotzeko baldintzak.*

2.- *Bestalde, 28. partzela erabilera tertziarioko partzela dela uste du, eta erabilera hori ezin dela aldatu plan partzialari egindako aldaketa batekin, horretarako planeamendu orokorra aldatzea beharrezkoa litzatekeela uste baitu.*

Udal zerbitzu teknikoek eta juridikoek egindako txostenak ikusita, ondorioztatzen da 2008ko irailaren 18an Plan Partziala aldatzeko hartutako erabakiarekin aldatutako Plan Partzialeko zehaztapenak ez direla urratzen arazoi hauengatik:

.- Gipuzkoako Foru Aldundiko 2003ko ekainaren 17ko diputatu kontseiluak behin betiko onartutako "Eskoriatzako Kuatriuna HIE 1eko Plan Partziala" arautzen duten ordenantzetako 2.2 artikuluak ezartzen du garajetarako erabiltzeko diren etxabeko espazioak ez direla aintzat hartuko eraikuntza-aprobetxamendu bezala. Artikulu beraren arabera, baimendutako sotoak eta erdisotoak ere ez dira aintzat hartuko.

Horregatik, ez da garrantzizkoa garajeetarako espazioak erdisotoko solairuak edo etxabeak diren ezartzea, kasu bietan ere emango zaien erabilera garajetarakoa baldin bada aintzat hartuko direlako eraikigarritasun ondorioetarako Plan Partzialean ezarritakoaren arabera.

.- 28. zenbakidun lurzatiaren erabilerari buruz, eta kalifikazio xehatuarri dagokionez "Eskoriatzako Kuatriuna HIE 1eko Eremuko Plan Partzialak" lurzatiaren ordenantza partikularrean ezartzen du lurzatia garapen baxuko egoitza-lurzatia dela; eta lurzatiaren

erabilera baldintzei dagokienez, berriz, etxebizitzetarako eta baimendutako erabileretarako erabiliko dela.

Ondorioz, eta kontuan izanik kasu honetan ez direla betetzen behin betiko egintza irmoak ofizioz erabat deusezak aitortzeko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 102.1 artikuluan eskatzen diren baldintzak, Udalbatzarrak, Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako DU:

EZ DA BIDEZKOA Francisco Amaral de Sousa jaunak Kuatriuna HIE 1eko eremuko plan partzialaren aldaketa behin betiko onartzen zuen erabakia ofizioz berrikusteko expedientea hasteko egindako eskaera.

**7.- FRANCISCO AMARAL DE SOUSA JAUNAK INMOBILIARIA KUATRUENA  
S.A. ENPRESAREN AURKA ZIGOR ESPEDIENTEA ETA HIRIGINTZA  
LEGALTASUNA BERREZARTZEKO ESPEDIENTEA HASTEKO EGINDAKO  
ESKAERAREN GAINEKO PROPOSAMENA**

2007ko abenduaren 11ko bi Alkate erabaki bidez Inmobiliaria Kuatriuna S.A. enpresari hirigintza lizenziak eman zitzaizkion ondorengo obrak egiteko:

A.- Familia bakarreko 14 etxebizitza KUATRUENA HIE 1ean (12, 13, 14, 15, 16, 17, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26 eta 27 zenbakidun lurzatiak) 2007/04/10ean bisatutako proiektuaren arabera.

B.- Familia bakarreko 3 etxebizitza KUATRUENA HIE 1ean (3, 5 eta 18 zenbakidun lurzatiak) 2007/06/28an bisatutako proiektuaren arabera.

Francisco Amaral de Sousa jaunak, 2010eko martxoaren 3ko sarrera eta 334 erregistro zenbakia duen idatzi bidez, alegatzen du eraikitako etxebizitzek nabarmenki hausten dituztela aplikagarri den planeamenduan ezarritako derrigorrezko zehaztapen urbanistikoak honako

oinarrizko bi alderdiei dagokienez: 12.etik 18.era bitarteko etxeen lerrokadurak eta distantziak eta erdisotoen ezaugarriak

Entzunaldia eskainita Inmobiliaria Kuatriuena S.A. enpresari, honek alegazio-idazkia aurkeztu du 2010eko martxoaren 15ean (erregistro zenbakia: 416).

Zerbitzu teknikoek nahitaezko txostena egin ondoren, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Antolamendu eta planeamendu aplikagarrien arabera gorde beharreko distantziak honela finkatuta daude: hiru metroko erretiroa lurzatiaren mugatik, eta beraz, bide ertza; eta 12 metrokoa ubidearen lerrotik.
- Jabeari entzunaldia eskaini ondoren, honek distantzia horiek agertzen ziren plano topografikoa eta 12.etik 18.era bitarteko etxeetatik errekaren ubidera dauden distantziak ezarritako 12 metroak betetzen dituztela eta etxe horietatik lurzatiaren mugetara eskatutako 3 metroak ere betetzen direla egiaztatzen duen topografian ingeniarri teknikoaren ziurtagiria aurkeztu zituen. Aipatutako planoak eta ziurtagiriak obra
- zuzendarien eta obra-exekuzioaren zuzendaria sinadura, oniritzia eta adostasuna dituzte.
- Lizentziak eman ziren egunean hirigintza araudi aplikagarria honako hauek osatzen zuten: 2003ko ekainaren 17an Diputatu Kontseiluak behin betiko onartu zuen Kuatriuena HIE 1eko Plan Partzialak eta Eskoriatzako Udaleko Udalbatzak behin betiko onartutako Xehetasun Azterketak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko 2003ko ekainaren 17ko diputatu kontseiluak behin betiko onartutako "Eskoriatzako Kuatriuena HIE 1eko Plan Partziala" arautzen duten ordenantzako 2.2 artikuluak ezartzen du garajetarako erabiltzeko diren etxabeko espazioak ez direla aintzat hartuko eraikuntza-aprobetxamendu bezala. Artikulu beraren arabera, baimendutako sotoak eta erdisotoak ere ez dira aintzat hartuko.
- Bestalde, Xehetasun Azterketak 14b aldatutako planoan ezartzen du aipatutako azaleretan garajeak eraikitzeko aukera izango dela etxabetan, erdisotan edo sestrapetan.
- Horregatik, ez da garrantzizkoa garajeetarako espazioak erdisotoko solairuak edo etxabeak diren ezartzea, biak ala biak baimenduta zeudelako lizentziak ematerakoan indarrean zegoen hirigintza araudian, eta kasu bietan ere emango zaien erabilera garajetarakoa baldin bada aintzat hartuko direlako eraikigarritasun ondorioetarako Plan Partzialean ezarritakoaren arabera.

Kontuan izanik eraikuntzek eskatutako distantziak eta erretiroak gordetzen dituztela eta erdisoto izeneko solairuek ez dutela hausten planeamendu aplikagarria, eta Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoarekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Alkatetzari proposatzea erabaki dezala EZ DELA BIDEZKO hirigintza araudia ezartzeko espedienterik eta Inmobiliaria Kuatriuena S.A.-ren aurkako zigor espedienterik hasterik, Francisco Amaral de Sousa jaunak sarrera erregistroko 334 zenbakidun idatzian alegatutako arrazoiengatik horrela eskatu arren.

19.30ean Pierrugues jauna bilkuratik inten da.

## **8.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA: 2. PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.**

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** [Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren babesean 2010-2015 epealdirako egindako Plan Estrategikoa onartzea eta euskara zerbitzuak urtez urte egingo dituen kudeaketa planak plan horren arabera egitea.](#)

**Bigarrena.-** [Onarpena Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraztea.](#)

## **9.- UDAL LOKAL BAT “AITZORROTZ KULTUR ELKARTEARI” LAGATZEA.**

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako 6 udalbatzarkideen aldeko botoekin (Alkate jauna, Lezeta andrea, Barandiaran jauna, Agiriano jauna, Otamendi andrea eta Okaranza andrea), kontrako 2 botoekin (Urrutia jauna eta Eraña andrea) eta 2 abstentzioekin (Leceta jauna eta Merino jauna) Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** AITZORROTZ KULTUR ELKARTEARI doan eta prekarioan lagatza Santa Ana 19 zenbakiko eraikinaren etxabean dagoen lokalaren erabilera taldearen jarduerak egin ahal izateko.

**Bigarrena.-** Lokala urtebeterako lagatzen da, honako baldintza hauekin:

*LEHENENGOA: Eskoriatzako Udalak dohainik eta prekarioan uzten dio Aitzorrotz Kultur Taldeari goian adierazitako udal jabetzako lokala.*

*BIGARRENA: Lokala argazki taldearen ekimenak antolatzeko erabiliko da eta ezin izango zaio hori ez den bestelako erabilierarik eman.*

*HIRUGARRENA: Lokala eta lokaletik antolatzen diren ekimenak Eskoriatzako herritarrei zuzenduta egongo dira. Hau da, taldeak antolatzen dituen ekimenak izaera irekia izango dute.*

*LAUGARRENA: Lokala Eingehinke taldearekin konpartituko dute, eta etorkizunean, beste talde batek izaera antzekoa duen egitasmo bat aurkezten badu, Udalak lokal berean sartzea erabaki lezake.*

*BOSGARRENA: Lokalean ekimenak aurrera eramateko beharrezkoak diren tresnak gorde ahal izango dira. Bertan lapurretarik egonez gero, edo erabiltzaileen materialak nolabaiteko matxurariik izanez gero, Udalak ez du horien ardura bere gain hartuko.*

*SEIGARRENA: Hitzarmen hau sinatu den egunean lokalean ondorengo zerrendan agertzen den materiala dagoela egiaztatu dute bi aldeek.*

- .....
- .....

**ZAZPIGARRENA:** Lokala zaintza erabiltzaileen ardura izango da eta edozelako arazorik sortuz gero (matxurak, apurketak...) Udalari lehenbailehen jakinarazi beharko zaio. Erabiltzaileek ezingo dute lokalean ezelako obrarik egin.

**ZORTZIGARRENA:** Bi aldeek berariaz aitortzen diote elkarri euren artean ez dagoela inolako dependentzia harremanik eta Udalak ez duela inolaz ere zuzentzen lokal horretan gauzatzen den jarduera. Lokalean egindako jarduera baten ondorioz nolabaiteko arazo materialik, pertsonalik edo moralik gertatuz gero, Udalak ez du ezelako erantzukizunik izango, ez zuzenean ezta subsidiarioki ere.

**BEDERATZIGARRENA:** Lokalaren mantentze-lanen gastua Udalak bere gain hartuko du. Lokalaren garbitasuna, berriz, erabiltzaileen ardura izango da.

**HAMARGARRENA:** Lokalari baimendutako erabilera emango zaiola ziurtatzeko, Udala edozein momentutan lokalera sartu ahal izango da. Udalak udaltzaina edo arloko teknikaria izendatzen ditu lokalaren ikuskapena egiteko arduradun.

**HAMAIKAGARRENA:** Hitzarmenak URTEBETEKO iraupena izango du, 2010eko apiriletik 2011ko apirilera arte, hain zuzen. Hitzarmena, dena den, sinatzaileetako edonork amaitutzat eman dezake idatziz bestearen aurrean aurkeztutako salaketaren bidez. Adierazitako salaketa hitzarmen honetan jasotako betebeharrok bete ez direlako aurkez daiteke. Bestalde, bi aldeak konforme badaude, hitzarmen hau beste urtebeterako luzatu ahal izango da.

**HAMABIGARRENA:** Prekarioan egindako zesio hau, bederatzigarren puntuaren aipatzen den arrazoiaz gain, beste arrazoi hauengatik ere utzi ahal izango da bertan behera:

1. Lokalean hitzarmen honetan aipatzen ez den beste erabilera bat gauzatzen delako edo hitzarmen honetako klausulak betetzen ez direlako.
2. Lokalari beste erabilera bat emanez gero, Udalak aukera izango du hilabeteko epearekin lokala beregantatuko duela adierazteko.
3. Udalak berak lokala bere zerbitzu baterako erabili nahi duelako.

Zesio-hartzaleak lokala Udalari ematearen aurka agertuz gero, Udalak aurkaren espedienteari hasiera eman ahal izango dio.

**HAMAHIRUGARRENA:** Hitzarmen honek indarra galtzen duen egunean, zesioaren hartzaleek lokala Udalari bueltatuko diote hartu duten egunean zegoen baldintza berberetan eta kontratuaren egunean bertan zeuden altzariekin.

## **10.- UDAL LOKAL BAT “QILEX ARTE TALDEARI” LAGATZEA.**

Udalbatzakide guztiekin ezagutzen dituzte lokala lagatzeko baldintzak.

Idazkariak ohartarazi du lagatza gura den lokala Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzarekin erosizela eta horregatik, bere erabilera Zubiateko Labeari atxikita dagoela.

Eztabaidatu eta bozketa eginda, eta Kulturako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Merino jaunaren abstentzioarekin eta gainerako udalbatzarkideen aldeko botoarekin, honakoa ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eusko Jaurlaritzarekin egin beharreko gestioak egitea Gaztañadui 27 zenbakidun etxabeko lokala lagatza galarazten duen eragozpenik dagoen jakiteko.

**Bigarrena.-** Gestioak egin ondoren eta eragozpenik ez dagoela ziurtatuta, doan eta prekarioan lagatza QILEX ARTE TALDEARI Gaztañadui 27 zenbakidun etxabeen dagoen lokala erabilera taldearen jarduerak egin ahal izateko. Berariaz debekatuta dago, eta horrela jaso beharko da sinatu beharreko kontratuan, irabazi asmoko jarduera pribatuak egitea. Aipatutako lokala lagatzeko eragozpenik balego, baimena ematen da Gaztañadui 29 zenbakian dagoen lokala baldintza beretan lagatzeko.

**Hirugarrena.-** Lokala urtebeterako lagatzen da, honako baldintza hauekin:

*LEHENENGOA: Eskoriatzako Udalak dohain eta prekarioan uzten dio Qilex arte taldeari adierazitako udal jabetzako lokala. Horren ordez taldeak honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain :*

- Udalari alderdi estetikoei buruz ideiak eta aholkularitza ematea: urbanizazio berrikuntzak, eraikuntza proposamenetan material eta bukaerak aztertu, etab.
- Herria estetikoki (herriaren irudia) hobetzeko urtero proposamen txosten bat egitea.
- Udalak antolatzen dituen lehiaketan epaimahai lanak egitea (balkoi lehiaketa, pintura lehiaketak, bideo lehiaketa, gabonetako web postala)...
- Urtero Eskoriatzan antolatzen diren beste kultur ekintzetan lan osagarria burutzea kultur ekintzak indartzea helburu bezala hartuta (Errekan gora ekitaldian musika, pintura eta beste formatu batzuk uztartzea)

*BIGARRENA: Lokala Qilex arte elkarreak dituen helburuak gauzatzeko erabiliko da eta ezin izango zaio hori ez den bestelako erabilerarik eman.*

*HIRUGARRENA: Lokalean artelanetarako beharrezkoak diren materialak eta tresnak gorde ahal izango dira baina inolaz ere ezingo dira han gorde artelanekin zerikusirik ez duten tresnak. Lokalean lapurretarik egonez gero, edo erabiltzaileen materialak nolabaiteko matxurariak izanez gero, Udalak ez du horien ardura bere gain hartuko.*

*LAUGARRENA: Hitzarmen hau sinatu den egunean lokalaren ondorengo zerrendan agertzen den materiala dagoela egiaztatu dute bi aldeek. Material hori behar bezala zaintzeko ardura lokalaren erabiltzaileena izango da.*

*BOSTGARRENA: Lokala zaintza erabiltzaileen ardura izango da. Edozelako arazorik sortuz gero (matxurak, apurtuak...) Udalari lehen bai lehen jakinarazi beharko zaio. Erabiltzaileek ezingo dute lokalaren ezelako obrarik egin, aldez aurretik Udalari baimena eskatu barik.*

*SEIGARRENA: Bi aldeak ados daude, euren artean ez dagoela inolako dependentzia harremanik eta Udalak ez duela inolaz ere zuzentzen lokal horretan gauzatzen den jarduera. Lokalean egindako jarduera baten ondorioz nolabaiteko arazo materialik, pertsonalik edo moralik gertatuz gero, Udalak ez du ezelako erantzukizunik izango, ez zuzenean ezta subsidiarioki ere.*

*ZAZPIGARRENA: Lokalaren mantenimentu gastua eta oinarrizko beharren gastuak (ura, argia berotze sistema) Udalak bere gain hartuko ditu. Lokalaren eta inguruaren garbitasuna, beti ere 5. puntuaren baldintza kontutan hartuta, erabiltzaileen ardura izango da.*

*ZORTZIGARRENA: Udalak eskumena izango du artelanetarako lokal hori beste herritar batzuei ere uzteko baldin eta Qilex arte taldearen lan baldintzetan eragozpenik eragingo ez balu eta aurrez elkartarekin konsulta burutzen bada. Sormen prozesuak eskatzen duen intimitatea, egile eskubideak eta lanak eta materialak inork eskuartearen erabili gabe errespetatzen direla ziurtatu beharko da. Kontratu hau sinatu dutenek ezingo diente Udalak baimendutako herritarrei lokalaren sartzea galarazi aurrez aipatutako baldintzak betetzen badira. Bestalde, Qilex taldeak beste herritar batzuei lokal hori erabiltzeko baimena emanez gero, Udalari jakinarazi beharko dio.*

*BEDERATZIGARRENA: Lokalari baimendutako erabilera emango zaiola ziurtatzeko, Udalak edozein momentutan lokalera sartu ahal izango da. Udalak udaltzaina edo arloko teknikaria izendatzen ditu lokalaren ikuskapena egiteko arduradun.*

*HAMARGARRENA: Hitzarmenak urte bateko iraupena izango du Hitzarmena, dena den, sinatzaileetako edonork amaitutzat eman dezake idatziz bestearen aurrean aurkeztutako salaketaren bidez. Adierazitako salaketa hitzarmen honetan jasotako betebeharra bete ez direlako aurkez daiteke. Bestalde bi aldeak konforme bidaude, hitzarmen hau beste urtebeterako luzatu ahal izango da.*

*HAMAIKAGARRENA: Prekarioan egindako zesiō hau, hamargarren puntuan aipatzen den arrazoiaz gain, beste arrazoi hauengatik ere utzi ahal izango da bertan behera:*

1. Lokalean hitzarmen honetan aipatzen ez den beste erabilera bat gauzatzen delako edo hitzarmen honetako klausulak betetzen ez direlako.
2. Hitzarmen honetan aipatzen den artelan jarduera egiten ez delako.
3. Lokalari beste erabilera bat emanez gero, Udalak aukera izango du hilabeteko epearekin lokalera bereganatuko duela adierazteko.
4. Udalak berak lokalera bere zerbitzu baterako erabili nahi duelako.
5. Zesiōaren hartzialeak lokal Udalari ematearen aurka agertuz gero, Udalak aurkaren espedienteari hasiera eman ahal izango dio.

*HAMABIGARRENA: Hitzarmen honek indarra galtzen duen egunean, zesiōaren hartzialeak lokal Udalari bueltatuko dio hartu duen egunean zegoen baldintza berberetan edo udaletxearen baimenaz egindako*

egokitzapenekin. Materialik faltatuz gero, dirutan ordaindu beharko du falta dena 4. puntuaren jasotako inventarioan oinarrituz.

## **11.- EZKER BATUAREN MOZIOA ESKOLA-JANTOKIETAKO LAN GATAZKARI BURUZ.**

Merino jaunak, Ezker Batuako bozeramaleak, adierazi du gatazka konpondu baldin bada ere, -eta horregatik mozioa bertan behera uzten duela-, mozioa irakurri behar duela biziako egoeraren testigantza gelditu dadin.

Ondoren, mozioa transkribatzen da:

Euskal eskola publikoko jantokietako zerbitzua ikasle "gehienek" erabiltzen duten oinarrizko zerbitzua da, hasi bi urtetako geletan eta derrigorrezko hezkuntza zikloa bete arte.

Jantokietako langileak egiten ari diren lanuzteak "bidezkoak" dira, oinarrian eskatzen dutena lan hitzarmen justua, begirale bakoitzeko ume kopurua jaistea, prestakuntza orduak izatea eta soldatu igotzea baita.

Eskaera horiek guztiak, bereziki ume kopuruaren jaitsierarena eta prestakuntzarena hoberako izango dira euskal eskola publikoaren kalitateari eta ikasleei eskainitako arretari dagokienez, eta horretan implikatu beharko lirateke bai Hezkuntza Saila bai, bereziki, zerbitzuaren esleipendun den enpresa, dagoeneko gurasoek egin duten bezala beraien elkarteen bidez.

Horrelako izaerako gatazka ez da gehiago luzatu behar; langileentzako, umeentzako eta hauen familientzako ondorioak hainbeste eta hain larriak izanik, inor ezin da gelditu albo batera begira. Gatazka hau berehala konpondu daiteke eta konpondu behar da, eta Hezkuntza Sailak, bera baita catering-enpresak kontratatzan dituena zerbitzua emateko, "erantzukizun berezia" du gatazka berehala konpontzeko konpromisoa har dezatela enpresei eskatzen.

Hezkuntza Sailak berak du gatazkak dirauen bitartean jan ordutan umeei arreta bermatzeko erantzukizuna ere, kontuan hartzen badugu borroka sindikalaren barruan langileek greba egiteko duten eskubidea bidezkoa dela.

Esandako guztiagatik, Eskoriatzako Ezker Batua-Berdeak udal taldeak ondorengo erabakia hartza proposatzen dugu:

Eskoriatzako Udalak eskola-jantokietako gaur egungo lan arazoari ahalik eta lasterren irtenbide bat bilatzea eskatzen du. Langileen eta enpresen arteko negoziazioarekin batera, behar-beharrezkotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren implikazioa.

Gatazkak dirauen bitartean Hezkuntza Sailari eskatzen diogu umeei eskaini beharreko arreta baldintza egokietan egingo dela bermatzeko eta ez uztea soiliik ikastetxeko zuzendaritzaren ardurapena edo gutxieneko zerbitzuen ardurapean, argi eta garbi dagoenean horiek ez direla nahikoa.

Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari bidaltzea eskatzen dugu

## **12.- JON ANZA ORTUÑEZEN DESAGERPENARI BURUZKO MOZIOA: "EGIA NAHI DUGU".**

Barandiaran jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

Jon Anza Ortuñez euskal herritarak 2009ko apirilaren 18an Baionatik Okzitaniako Tolosara zihuan trena hartu zuen. Hori izan zen bere senideek Jon ikusi zuten azken momentua. Hilabete beranduago, Maiatzaren 18an, Baionako fiskaltzak ikerketa zabaldu zuen senideen desagerpen salaketaren ostean.

Ia urte bete beranduago, 2010eko Martxoaren 11an, Jonen gorputua izan zitekeena Okzitaniako Tolosako hil-etxearen aurkitua izan zela zabaldu zuten zenbait hedabide frantses eta espainiarren aldetik. Hedabideetan zehar gertatutakoaren inguruko informazio bat zabaltzen zen bitartean, Jonen sendiari aipatu hirira hurbiltzeko deia helarazi zioten gorputua Jonena zen egiazta zezan. Hara iristerakoan baina, oztopo eta debekua bata bestearen atzetik iristen hasi zitzaiakion, gorputua ikusteko debekua ezartzeraino. Azkanean konfidantzazko sendagile batek egiaztu ahal izan zuen gorputua Jonena zela.

Urte honetan guztian Jonen inguruko berrikirik izan ez arren, jaso ditugu bere desagerpenari loturiko albiste eta informazio ezberdinak. Informazio hauek guztiak desagerpen honen gaineko susmorik ilunenak indartzea ekarri dute:

- ETA erakundeak Jonen militantziaren berri eman zuen. Gaineratu zuen Jonek erabiltzen zuen zulo bat poliziek aurkitu zutela eta beraz poliziak jakitun zirela Jonen militantziaz, Jonen hatz markak bertan aukitzearren ondorioz.
- Frantziar poliziak Jonen senideei jakinarazi zien beraien hipotesien artean zegoela Jonen desagerpenean espinpiar poliziek esku hartu izana.
- Gara egunkariak publiko egindako informazio batek Jonen desagerpena Espainiako polizien bahiketaren ondorioz etorri zela argitu zuen.
- Joseba Egibarrek zuzenean galdu zion Rubalcabari ea Jon Anzaren desagerpenean polizia espiniarrek parte hartu ote zuten, herri honetan aurrez izandako antzeko kasuak gogora ekarri.
- Jacques Massey frantziar kazetari eta irakasle ezagunak buruturiko hainbat ikerketa eta elkarrikzeten ondoren Jon Anza Espainiako poliziek bahitua eta hil zutela ondorioztatzera iritsi zen.
- Pariseko *Liberation* egunkariak buruturiko erreportaiak norabide berean landu zuen gaia, Espainiako Polizien inplikazioaren susmoa indarra hartzen ari dela azpimarratuz.

Honetaz gain gogora ekarri behar dugu bai Espainiako Entzutegi Nazionalak, bai Baionako auzitegiak Jon Anzaren desagerpena argitzeko ikerketak abian dituztela.

Okzitaniako Tolosako hil-etxeen Jonen gorpua agertu ondoren, Baionako prokuradoreak honakoa azaldu zuen bertsio ofizial moduan:

- Apirilaren 29an Jon Okzitaniako Tolosako parke batean aurkitua izan zela burua jardinera batean zuela.
- Pertsona partikular batek emergentzi zerbitzuak deitu eta hauek bihotz masaje bat eman ostean Jonek pultsa berreskuratu zuela.
- Tolosako Purpan ospitalera garraiatua izan zela.
- Hortik eta ondorengo egunetan konorterik gabe egon zela eta ez zuela konortea berreskuratzea lortu.
- 11 egunetara, Maiatzaren 11n, ospitale horretan zendu zela.
- Ordutz gerotzik gorpua Tolosako hil etxeen gordeta egon dela, identifikatu gabeko pertsona moduan.
- 2010eko Martxoaren 11 baino egun batzuk lehenago Medikuntza Legaleko Institutuko funtzionario batek bere

- lagun polizia bati gorpu ez identifikatu baten izana azaldu ziola.
- Polizia honek Jonen arropan Baionatik Tolosarako 2009ko Apirilaren 18rako eta itzulerarako Apirilaren 20rako bi tren txartel aurkitu zituela, eta Jonen gorpua izan zitekeela ondorioztatu zuela.

Ez dugu sinisten Frantziar Poliziak zabaldu duen bertsioa, eta hainbat galdera mahai gainean jarri nahi ditugu:

- Non egon zen Jon desagertua apirilaren 18tik 29ra bitarte?
- Nork deitu zuen Jon banku batean aurkitu zuela esanez?
- Nork jaso zuen Jon eta ospitalera eraman?
- Non dago Jonek zeraman dirua?
- Zein mediku arduratu zen Jonen egoeraz bera ospitalean egon zen bitartean?
- Non daude Jonen inguruan egindako mediku-parteak?
- Non dago Jonen hiltze agiria?
- Ospitaleak Jonen heriotzaren berri epaile eta polizieei eman zien. Zer egin zuten poliziek edo epaileek informazio honekin?
- Ikerla al zuten hilda agertu zen gorpua norena izan zitekeen?
- Poliziak bazuen aurrez Jonen ADN-a, baita senideena ere. Gorpuari egin al zizkioten ADN frogak? Zeintzuk izan ziren emaitzak?
- Baionatik Tolosara ziholan pertsona baten desagerpena lau haizetara zabaldu da azken hilabeteetan. Data antzekoan bidai horretako tren txartela zeraman pertsona ezezagun bat agertu da eta ospitalean hil. Nola da posible orain arte loturarik egin ez izana?
- Jonen desagerpenaren inguruko ikerketan zehar ez zen bere berri galdu hiriburu honetako ospitale nagusian? Galduen bazeen, zein izan zen jasotako erantzuna?
- Zergatik familiari konfirmatu aurretik berria komunikabideetan filtratu du poliziak?
- Zergatik ez zaio utzi familiaren konfidantzazko medikuari autopsian bertan egoten?
- Zergatik guardia zibil batzuk Tolosako hotel batetik presaka eta korrika atera ziren, desagerpenaren berri eman zen egun berean?

